

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2726

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 8koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez Ezkio-Itsasoko (Gipuzkoa) AIU 9 Santa Lutzi-Anduaga eremuko industria-sektorea urbanizatzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena egiten baita. Proiektu hori Sprilur SAK sustatu du.

AURREKARIAK

Garai horretako Ingurumen Administrazioaren 2020ko azaroaren 23ko Ebazpenaren bidez gauzatu zen Ezkio-Itsasoko (Gipuzkoa) AIU 9 Santa Lutzi-Anduaga eremuko industria-sektorea urbanizatzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2023ko martxoaren 27an argitaratutako Iragarkiaren bitartez, Ezkio-Itsasoko Udalak jendaurrean jarri zituen AIU 9 Santa Lutzi-Anduaga eremuko industria-sektorea urbanizatzeko proiektua eta horri dagokion ingurumen-inpaktuaren azterketa, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, egokitzat jotako alegazioak aurkez zitezen.

Organo substantiboak, 2024ko otsailaren 26an, ziurtatu du ez dela alegaziorik jaso jendaurreko informazioaren izapidean.

Jendaurreko informazioaren izapidearen aldi berean, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 37. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, Ezkio-Itsasoko Udalak kontsultak hasi zituen eraginpeko administrazio publikoekin eta interesdunekin. Emaidza espedientean jasota dago.

2024ko otsailaren 27an, Ezkio-Itsasoko Udalak osatu zuen, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzan, AIU 9 Santa Lutzi-Anduaga eremuko industria-sektorea urbanizatzeko proiektu bateginaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eskaera, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu zen:

- «AIU-9 Santa Lutzi-Anduaga» urbanizatzeko proiektu bategina. 2023ko azaroa.
- «AIU-9 Santa Lutzi-Anduaga» urbanizatzeko proiektu bateginaren ingurumen-inpaktuaren azterketa. 2024ko otsaila.
- Jendaurreko informazioaren izapidearen emaitzei buruzko dokumentazioa.
- Ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta-izapidearen emaitzari buruzko dokumentazioa.
- Proiektuaren azken proposamenean, egindako kontsulten emaitza, organo substantiboaren oharra eta haiek kontuan hartzeko modua sartzea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 1. artikuluan eta Ingurumen-administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan ezarritakoaren

arabera, helburua da ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea; horrela, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko helburuarekin.

Era berean, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaie arau horren II.D eranskinean zerrendatutako proiektu publiko edo pribatuei. Ezkio-Itsasoko AIU 9 Santa Lutzi-Anduaga eremuko industria sektorearen urbanizazio proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura bete behar du, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.D eranskinean jasota baitago, hain zuzen ere 4. epigrafean «II.E eranskinean jasotako beste programa batzuek, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuko prozedura gauzatu ondoren ingurumen-organoak hala erabakitzen badu edo sustatzaileak hala eskatzen badu».

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatzeko, Ezkio-Itsasoko Udalak, organo substantibo gisa, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta egiteko beharrezkoa dena xedatu du. Horretarako, ingurumen-inpaktuaren azterketa bat gehitu du espedientean, kontsulta publikoak egin ditu, eta eragindako administrazio publikoek eta interesdunek prozeduran parte hartu dute.

Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren espedienteko dokumentazio tekniko eta txostenak aztertuta, eta ikusirik ingurumen-inpaktuaren azterketa zuzena dela eta indarreko araudian ezarritako alderdien arabera dela, irismen-dokumentuan jasotako baldintzak barne, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau eman du; bertan, proiektuaren proposamenean ingurumen-arloko alderdiak sartzearen alde egin da, eta proiektua aplikatzearen ondorio adierazgarrien aipamena jaso da, baita sartu beharreko azken oharrak ere, soilik ingurumen-arlokoak. Zuzendaritza hori eskumena duen organoa da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Sprilur SA enpresak Ezkio-Itsasoko udal-mugartean AIU 9 Santa Lutzi-Anduaga eremuan industria-sektorea urbanizatzeko sustatu duen proiektuaren (aurrerantzean, proiektua) ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpen hau egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik.

Proiektuaren helburua hau da: zehaztea zer jarduketa behar diren AIU 9 «Santa Lutzi» industria-sektorea industria-jarduera garatzeko beharrezkoak diren zerbitzu eta azpiegitura guztiez hornitzeko. Sektoreak 180.638 m²-ko azalera du.

Eremuaren antolamendu xehatua AIU 9 Santa Lutzi-Anduaga industria-sektorearen Plan Parzialean jasota dago. Plan hori behin betiko onartu zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko diputatuaren 2014ko uztailaren 9ko Foru Aginduaren bidez. Horrenbestez, lurzorua industria-lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dago.

Lursailaren malda handia dela eta, eraikinak hiru lerro paralelotan diseinatu dira, maila desberdinetan; garaiena 295. kotan dago. Sektorearen beheko aldean nabe modularrak daude, eta goiko aldean, berriz, tamaina ertain eta handiko lurzatiak.

Proiektuak planteatzen du bide bat sortzea Santa Lutzi errekarerako paraleloan, 7.1 EE eremu biribilgunearen eta eremuko ipar-ekialdeko ibilgailuentzako sarbide berriaren artean, trafikoa astuna desbideratzeko eta egungo GI-2632 errepideak hiri-izaera handiagoa izan dezan. Era berean, Santa Lutzi errekararen ezkerrean dagoen oinezkoentzako pasealekuari jarraipena ematea planteatzen du (gaur egun Funcasa enpresaren atzeko alderaino iristen da), eta ekipamenduko lurzatiak eremuaren beheko aldean jartzea. Eraikinak 3 lerro paralelotan diseinatu dira, altuera desberdinetako plataformen gainean.

Bai Santa Lutzi errekararen gaineko zubia, bai GI-2632 errepidearekin lotzeko biribilgunea erakita daude jada. Eremuko ipar-mendebaldeko etxebizitza eta baserrietarako sarbide berri bat ere egin da, Santa Lutzi errekararen eskuinaldetik doan bide baten bitartez.

Talleres Eitzaren eta bi baserriren (Sagastizabal errota eta Agerrebengoa) eraikinak eraitsi dira, ez baitziren bateragarriak AIU 9 eremuko industria-garapen berriaren antolamenduarekin. Urbanizazio-proiektuak barne hartzen du eraitsitako etxebizitzak berriz egitea.

Abiadura handiko trenaren traza biaduktuan igarotzen da, Talleres Eitzaren nabea zenaren gainetik.

Proiektuaren eremuaren topografiak 50 metro inguruko desnibela du, +250 eta +300 koten artean. Hori dela eta, lurzatiak kota-alde horien ondorioz, lur-mugimendu handiak egiteaz gain, euste-hormak ere egin behar dira industria-lurzatiak ezarriko diren plataformen artean.

Ezponden gehieneko altuera 25 m-koa da, eta 3H:2V-ko malda izango dute, hala lubeta-eremuetan nola lur-erazketako eremuetan. Txosten geoteknikoak 4H:3V lur-erazketako ezpondak proposatzen ditu lurzoruetan eta harri meteorizatuan, eta 1H:2V, berriz, harri osasuntsuan; halere, proiektuak aukeratu du lur-erazketako ezpondak gehiago zabaltzea, eta, oro har, gunita+bulo-naje motako euspenak alde batera uztea.

Proiektua osatzen duten lan guztiak bi fasetan egitea aurreikusten da, eta fase horiek elkarren segidan gauzatuko dira:

1. fasea.– Beheko aldea antolatzea.

1. fasean, P.I.1, P.I.2 eta P.I.3 zabalgunek sortzeko beharrezkoak diren lur-mugimenduak egitea proiektatzen da, eta horiekin batera, baita plataforma horiek sortzea ahalbidetzen duten hormak ere (1., 2. eta 9. hormak). Euste-horma horiez gain, 7. eta 8. hormak definitzen dira proiektuaren lehen fasean, eskailerak eraikiz 1. eta 2. zabalguneen arteko lotura egiteko.

Gainera, lehen fase horretan, proiektatzen da A, B (lurzatiarako sarbidea ematen duen zubitik C bidearekin lotu arte), C, D, E eta F bideak egikaritzea. Fase horretan, halaber, 1. fasean aurreikusitako zabalguneei eta pabiloiei zerbitzua emateko beharrezkoak diren hiri-zerbitzuak gauzatuko dira.

Era berean, edateko uraren biltegi bat egingo da lurzatiaren goiko aldean. Biltegiaren helburua da urbanizatutako lurzati osoan aurreikusitako eskaria hornitzea, eta horrez gain, baita bertan aurreikusitako pabiloiek 1. eta 2. faseetan duten kontsumoa ere.

2. fasea.– Goiko aldea antolatzea.

2. fasean, behar diren lur-mugimenduak egingo dira kotarik altuenetan (P.I.4, P.I.5 eta P.I.6) dauden zabalgunek sortzeko eta haietarako jotzeko bidea eraikitzeko. Horretarako, ezinbestekoa da zenbait horma (3., 4., 5. eta 6. hormak) proiektatzea, plataformak eta haietara ematen duen B bidea sortzeko.

Lur-mugimenduak:

Planteatutako lur-mugimenduen ondorioz, lur-berdinketa barne hartuta, lur-soberakinak egongo dira; guztira 669.137 m³ hondeatuko dira. Material horietako batzuk obran berrerabiliko dira, karez egonkortzeko tratamendua egin ondoren. Irristatzeak antzeman diren eremuetako beste material batzuk ezin izango dira berrerabili betelanetan, eta 100.000 m³ inguruko soberakina sortuko da 1. fasean, eta 47.000 m³ ingurukoa 2. fasean.

Fabrika-egiturak eta -obrak:

Askotariko tipologietako 14 horma proiektatu dira. Luzera eta altuera aldetik, 1., 2. eta 3. hormak nabarmentzen dira; 286, 533 eta 577 metroko luzera dute, hurrenez hurren. Horma horiek 7,50 m-ko altuera dute, gehienez ere.

Bideak:

9 HJ Eren industria-garapenaren bide-diseinua 3 ardatz nagusitan egituratzen da (A, B eta C). A bidea –440 m luze– GI-2632 errepidearekin lotzeko biribilgunean hasten da; Santa Lutzi errekarerkin gutxi gorabehera paraleloan doa, haren eskuinaldetik; P.I.1 lurzatiko beheko nabeei zerbitzua ematen die, eta, azkenean, bat egiten du Anduaga eremuko egungo bidearekin.

B bidea aurrekoan hasten da; 753 m-ko luzera du, eta plataformarik altuenetara ematen du (P.I. 4, P.I. 5 eta P.I.6). B bidetik C bidea ateratzen da (601 m luze); bide horrek ematen dio zerbitzua P.I.2 eta P.I.3 lurzatietako nabeetara eta P.I.1eko goiko nabeetara sartzeko bitarteko plataformari.

Luzera txikiagoko beste bide batzuk daude. D, E, F eta G bideak dira (261 eta 50 m luze artekoak).

Euri-uren sarea:

Sektorearekin paraleloan doa, I-H noranzkoan, Santa Lutzi erreka; gaur egun bi ibarbide txikiren ekarpena hartzen du. Haien gaineko jarduketa egiten da Santa Lutzi errekarerkin lotzen duen drain frantses baten bidez, sektorearen mugen barruan.

Iparralderago dagoen ibarbidea aurreikusitako lur-mugimenduen eremutik kanpo dago; ondorioz, perimetro-desbideratze bat egiten da zorroten mailakatu baten bidez.

Bigarren ibarbiderako irtenbidea hauxe da: autobia eraikitzean hasitako ubideratzeari jarraipena ematea, harik eta +273 kotan proiektatutako bidearen kotara iritsi arte, haren trazadura ezin baita aire zabalean zuzendu. Ekarpen nahiko txikiko arropa da.

Eremu urbanizatu berriari dagokionez, drainatze-sare bat proiektatu da. Sare horren helburua da jatorri horretako urak hustubideen bidez biltzea eta grabitatearen bidez kolektore nagusietatik garraiatzea ibilgura isuri arte, hidrokarbuero-bereizgailua dagoen putzutik igaro aurretik.

Ia zerbitzu-sare guztiak GI-2632 errepideko biribilgunearen inguruan daude, errekarerkin eskuinaldetik doan hondakin-uren kolektore nagusia izan ezik. Sare horietarako konexioa planteatu da, horietako baten trazadura aldatu beharrik gabe.

Ur-hornidura:

Dagoen edateko uraren hornidura-sarea ez da nahikoa garapen berrirako, eta, beraz, ur-biltegi berri bat eraikiko da sektorearen barruko eremu garai batean.

Hondakin-uren sarea:

Sektoreko ur beltzen sarea Santa Lutzi errekaaren eskuinaldeko ur beltzen kolektoreari lotuko zaio.

Ukitutako zerbitzuak:

La hargune-sare guztiak GI-2632 errepideko biribilgunearen inguruan daude, hondakin-uren kolektore nagusia izan ezik, errekaaren eskualdetik baitoa. Proiektuak sare horietarako konexioa aurreikusten du. Lur-mugimenduak egiteko, Olazabarren baserriraino iristen den behe-tentsioko linea elektrikoa desbideratu beharko da. Sektorearen mugaren hegoaldeko perimetrotik desbideratzea pentsatu da. Sektoreko lanak amaitu ondoren, aldi baterako aireko linea hori desegiteko aukera egongo da, eta baserri horretarako hornidura industrialdeko transformazio-zentroetako batetik egingo litzateke.

220 kV-eko linea elektriko bat dago; linea horrek eremua diagonalean zeharkatzen du eta gaur egun dagoen bezala geldituko da, sortzen dituen zortasunak eta mugak errespetatuta.

Bigarrena.– Baldintza hauek ezartzea proiektua gauzatzeko (lotesleak dira, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78.1 artikuluan xedatzen denaren arabera):

A) Proiektua garatzeko kondizioek zein babes- eta zuzenketa-neurriek jarraitu egingo diete indarrean dagoen araudiari, Ebazpen honen apartatu hauetan ezarritakoari, eta, aurrekoari aurka egiten ez dion guztian, proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Ezkio-Itsasoko Udalak Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoari.

Proiektu honen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko prozedurak, proiektuaren sustatzaileak aurkeztutako dokumentazio teknikoaz gain, kontuan izan du espedientean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko prozeduraren fase orotan erantsitako txostenen edukia, bai eta jendaurreko informazioaren izapideak iraun duen bitartean jasotako alegazioak ere.

B) Proiektua aldatzen edo zabaltzen bada, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Proiektuan egingo diren aldaketa puntualak arrazoitu egin beharko dira ingurumenaren ikuspegitik, aurreko apartatuan adierazitako garrantzia ez izanda ere. Proiektuari egiten zaizkion aldaketak honako hauetan jasoko dira: babes- eta zuzenketa-neurrietan, ingurumen-zaintzako programan, aurrekontuan eta baldintzen agirian.

C) Ingurumen-ebaluazioko prozeduraren alderdi garrantzitsuak.

Urbanizatu beharreko eremua 18 ha-ko lurzati bat da, eta Ezkio-Itsasoko udalerrian dago, industria-lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruan. Oiarbide eta Anduaga industrialdeen, abiadura handiko trenaren plataformaren eta GI-632 autobidearen artean dago.

AIU 9 Santa Lutzi-Anduaga eremua komunitateen arteko Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren arroan dago, Oria Unitate Hidrologikoan. Eremuaren ekialdean, ipar-hego noranzkoan, Santa Lutzi erreka doa.

Sektoreak oso malda handiko topografia du, eta berrogeita hamar metroko kota-aldea dago gunerik garaienetik baxuenera. Alderik lauena Santa Lutzi erreka-ondoko behealdea da.

SPRI Taldeak mendi-hegal horretako lurak erosi zituen Santa Lutzi industrialdea eraikitzeko, eta harrezkero alde batera utzita egon dira nekazaritzako eta basogintzako erabilerak. Baso-jarduera utzi ondoren, leheneratzen ari dira bertako hostozabalen baso gazteak, eta zuhaixkak eta sasitzak eratzten. Flora-espezie inbaditzaile ugari daude: *Buddleja davidii*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* eta *Phyllostachys sp.*

Inguruneko elementurik nabarmenena Santa Lutzi erreka da (Argisao erreka ere esaten zaio); Eztanda ibaiaren ezkerreko ibaiadar nagusia da, eta harekin egiten du bat Ormaiztegi parean. Errekak, proiektuaren eremuko zatian, itxura on samarra du; ibaiertzeko landaredia dago (haltzadi kantauriarra; alegia, Batasunaren lehentasunezko intereseko habitata), eta ibilgu naturala. Ibaian behera, ur-ibilgua horma artean bideratuta dago, eta haren egoerak, ondorioz, nabarmen egiten du okerrera. Urbanizazio-proiektuaren eremuaren zati bat Santa Lutzi erreka-ondoko 100 eta 500 urte arteko errepikatze-denborako uraldietarako uholde-arriskua duen eremuan dago.

Ez da azaldu mehatxatutako animalia- edo landare-espezierik dagoenik. Eremuan ez dago naturagune babesturik.

Agerrebengoa baserriari lotutako balizko arkeologia-gunea dago proiektuaren eremuan. Balizko arkeologia-gunearen mugak bat zetozen eraikinaren harresi-barneko eremuarekin. Eraikina 2007-2008an eraitsi zuten, eta gaur egun pista bat dago; horrenbestez, proiektuak ez du eraginik kultura-ondarean.

Eremuko landare-formazio gehienak gazteak dira, eta faunarentzako habitat gisa nolabaiteko interesa badute ere, sektorea industrialdeen eta komunikabideen artean dago; horrek interesa kentzen dio, eta mugatu egiten du fauna hartzeko ahalmena.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten bi eremu daude; hain zuzen ere, 20035-00043 (Santa Lutzi betelana) eta 20035-00018 (industrial) kodeak dituztenak. Igorritako informazioaren arabera, eremuok lurzoru-kalitatearen adierazpena dute.

Urbanizazio-proiektuan jasotako azterlan geoteknikoaren arabera, mendi-hegalak egonkortasun egoera oso kaskarra du. Ezegonkortasun horren arrazoi nagusia egiturazkoa da, estratifikazioa mendi-mazelarekiko paraleloan eta okerdura gogorrekin dagoelako. Detektatu diren beste ezegonkortasun mota batzuk haustura-plano baten aldeko masa-irristatzeei dagozkie; malkar erdizirkular bat edo batzuk dituzte, eta metatze-gunea oinarrian. Bost eremu irristatu ere egiaztatu dira, baina hiruk bakarrik eragiten diote zuzenean jardun-eremuari.

Proiektuaren izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, proiektuaren inpaktu nagusiak lur-mugimenduekin daude lotuta; izan ere, haien ondorioz, ezponda handiak egin eta landaredia kendu beharra dago.

Plan Partzialean aurreikusitako jarduketa batzuk gauzatu egin dira jada: Santa Lutzi erreka-ondoko zubia eta etorkizuneko industrialdera sartzeko biribilgunea, GI-2632 errepidearekiko loturatik abiatuta. Halaber, eremuko ipar-mendebaldeko etxebizitza eta baserrietarako sarbide berri bat ere egin du ETSK, Santa Lutzi erreka-ondoko eskuinaldetik doan bide baten bitartez.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak honako galera hauek jaso ditu: hostozabalen baso gaztearen 65.506 m², zuhaixken 36.153 m², sasitzaren 11.796 m², belardien 11.204 m², fruta-arbolen 1.973 m² eta landaretzarik gabeko eremuen edo landaredi erruderal nitrofiloko eremuen 8.200 m².

Ez du eraginik izango Santa Lutzi erreka errekako haltzadi kantauriarraren eremuak, zeina inguruko enklaberik baliotsuena den.

Galduko den landaredia konpentsatzeko, inpaktu-azterketak landareztatze proiektua hartzen du barne; horri jarraikiz, 45.262 m²-ko azalera leheneratuko da, urbanizazio-proiektuaren eremuan ibaiertzeko basoko eta hostozabalen baso mistoko berezko espezieak landatuz. Konpentsazio-neurri gisa, aurreikusi da Izazpi mendiko 106.529 m²-ko azalera pagadia jartzea, gaur egun otadia eta konifero-sailak dauden eremuetan.

Era berean, nabarmenak dira planteatzen diren lur-mugimendu handien ondoriozko inpaktuak, lekuaren geomorfologia aldatzearekin eta indusketa-soberakinak sortzearekin eta kudeatzearekin lotutakoak, zeinek 147.000 m³-ko material-soberakina baitakarte eta, orobat, lekua urbanizatzeko beharrezkoak diren ezpondak eta hormigoi armatuzko euste-hormak –horietako batzuk handiak dira– egitearekin lotutakoak.

Eremuaren uholde-arriskuari dagokionez, proiektuak azterlan hidrauliko bat du (15. eranskina), eta, horren arabera, proiektatutako urbanizazioak aldaketa oso lokala dakar, T 500 uraldiaren eragin hidraulikorik gabe; 500 urteko errepikatze-denborako uraldietarako uholde-arriskurik ez dago, eta ez ditu inbaditzen ibaiaren zortasuneko 5 metroko zerrenda eta lehentasuneko fluxu-eremua.

Eremuan dauden lurzoru kutsatuei dagokienez, proiektuak ez du aurreikusten hondeaketarik egitea eremu horietan; betelan txiki bat baino ez da egingo lehen aipatutako bigarren eremuan, eta 1,8 m²-ko azalera baino ez dio eragingo. Baztertu da, horrenbestez, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan eraginik egotea.

Aurreikusitako lur-mugimenduen ondorioz baliteke azaleko uren uhertasuna handitzea, eta uren kalitatea ere aldatzea, bertan dauden makinaren mantentze-lanetan erregaiak, olioak eta bestelako gai kutsatzaileak nahigabe isurtzeagatik. Dena den, efektu horiek gertatzeko probabilitatea nabarmen murrizten da ingurumen-inpaktuaren azterketan proposatutako prebentzio-neurriak kontuan hartuz gero.

Urbanizazio-proiektuan, proiektuaren obra-faseari lotutako inpaktu akustikoaren azterketa dago jasota, eta han ondorioztatzen da fase horretan gaitutako direla sektorearen inguruko bi eraikinetan definitutako kalitate akustikoko helburuak. Inpaktu hori ahalik eta txikiena izan dadin, ingurumen-inpaktuaren azterketan aurreikusi da behin-behineko apantailamenduak egitea (hau da, 2 m garai eta 10 m luze diren lur-bizkarrak), Sagastizabal baserria eta Hierros Belokiren industria-nabea akustikoki babesteko.

D) Babes- eta zuzenketa-neurriak.

Babes- eta zuzenketa-neurriak indarrean dagoen araudiaren arabera gauzatuko dira, hurrengo apartatuetan adierazitakoa kontuan hartuta, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, Ezkio-Itsasoko Udalak Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoa kontuan hartuta.

Neurri horiek eta kontrolerako izendatutako langileek ingurumen-inpaktuaren azterketan ezarritako kalitate-helburuak eta ingurumen-inpaktuaren adierazpen honetan ezarritakoak bermatu beharko dituzte.

Neurri horiek guztiak obra kontratatze baldintza-agirietan eta proiektu-planoetan sartu beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua ere izan beharko dute. Era berean, obretako jardunbide egokiak aplikatuko dira.

D.1.– Natura-ondararako afekzioa gutxiagotzeko neurriak.

Aplikazio-araudian xedatutakoa gorabehera, honako prebentzio- eta zuzenketa-neurri hauek erantsiko zaizkio proiektuari ondare naturala babeste aldera:

– Ezinbesteko eremu txikienean egingo dira lanak eta lurzorua okupatzea dakarten gainerako jarduketa osagarriak; betiere proiektuko planoek ezartzen dituzten mugen barruan. Aipatutako mugetatik kanpo, ezingo da izan eraginik sarbideak egin, materialak bildu, instalazioak kokatu edo beste edozein jarduketa osagarri egin behar izateagatik, eta ahal bezainbat mugatuko da lanak egiteko makinen eta ibilgailuen zirkulazioa.

– Ustekabeko kalterik egiten bada aipatutako eremutik kanpo, zuzenketa- eta leheneratze-neurriak hartuko dira. Aurrez, txostena egingo du ebazpen honetako D.11 apartatuak aipatzen duen ingurumen-aholkularitzak.

– Ez da landaredi autoktonotik kenduko eta/edo moztuko zuzeneko okupazioa aurreikusi ez den eremuetan. Horretarako, obrak hasi aurretik, zehatz-mehatz mugatu eta balizatu beharko dira proiektuaren eremuan dauden zuhaitz-ale eta zuhaitzi multzo autoktonoak, eta, bereziki, eremuaren ekialdean dauden haritzak eta/edo lizarrak.

– Obrak hasi aurretik, proiektuaren eremuan identifikatutako espezie inbaditzaileak desagerrazteko kanpaina bat egingo da (hala nola *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana*, *Buddleia davidii*, *Phyllostachys aurea* edo beste batzuk).

– Kontrol-neurriak hartuko dira lurrak mugitu diren eta landaretzarik gabe gelditu diren eremuetan landare-espezie inbaditzaileak sar ez daitezen. Horrez gain, landare-estalkia leheneratzeko lanetan erabilitako lurren jatorria kontrolatu beharko da, espezie inbaditzaileak izan ditzaketen lurrik ez erabiltzeko.

– Obrak egin aurretik, ingurumen-inpaktuaren azterketaren edukiaren arabera, proiektuaren eragin-eremuaren prospekzioa egingo da, faunarentzat interesgarriak diren eremuak detektatzeko, hala nola habiak, gordelekuak eta abar. Intereseko elementuak eta/edo intereseko espezieen ugalketa detektatuz gero, horiek babesteko neurriak hartuko dira, eta, hala badagokio, espezie horiek kontserbatzeko lan-egutegi egoki bat ezarriko da.

– Beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira flora exotiko inbaditzailea ez dadin ugaltu; besteak beste:

- Makina eta tresna garbiak erabiltzea, espezie inbaditzaileen propaguluak edo haziak izan ditzaketen lohi- edo lur-hondarrik gabekoak.
- Kaltetutako landaredia ahalik eta azkarren birjartzea espezie autoktonoekin eta agertu diren landare inbaditzaileak bitarteko mekanikoekin kentzea.
- Obrak amaitu eta gero, landaredi inbaditzailea jarraitzeko eta, hala badagokio, landareak kentzeko lana mantendu beharko da, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legea kontuan hartuta.

D.2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

Jabari publiko hidraulikoari eragiten dion edo babes-eremuetan kokatzen den jarduera orotan Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko administrazio-baimena beharko da. Baimen hori Uraren Euskal Agentziaren bidez izapidetuko da. Era berean, ezin izango da jabari publiko hidraulikora isurketarik egin arroko erakundearen baimenik gabe.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, honako neurri hauek hartuko dira:

– Oro har, eraikuntza-fasean, ahalik eta efluente kutsatzaile gutxien sortuko da, eta ahalik eta material xehe eta gai kutsatzaile gutxien isuriko da drainatze-sarera.

– Obra-eremuetan, lanen eta jarduera osagarrien ondorioz kutsatzen den ur guztia biltzeko eta kudeatzeko gailuak proiektatu eta eraikiko dira. Haien neurriak zehazteko, kalkulu hidraulikoak egingo dira, solidoei ahalik eta ongien eusten dietela eta isuriak lokalizatuak eta indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen parametro fisiko-kimikoen arabera direla bermatzeko.

– Tratamendu-sistemak aldian-aldian ikuskatuko dira, edukiera erabilgarria nahikoa izateko une oro eta, hartara, tratamendu-sistemaren errendimendua ahalik eta onena izateko.

Elementu horien ezaugarriak, kokaleku zehatza eta neurriak Ebazpen honetako D.12 apartatuan aipatzen den lan-programan jasoko dira, zeina, obrak aurrera egin ahala, aipatu gailu horien kokapenean aldaketak programatzen direnean egokituko baita.

– Dekantatutako jalkinak aldian-aldian jaso eta kudeatuko dira, ebazpen honen D.6 apartatuan xedatutakoaren arabera.

– Obrako makinak gordetzeko eremua eta haiek mantentzeko tokia drainatze-sare naturaletik isolatu beharko dira. Zola iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema bat izango ditu, olio eta erregaiek lurzorua eta ura ez kutsatzeko. Ezin izango da egin erregaien zamalanik, olio-aldaketarik eta tailerreko jarduerarik, horretarako adierazitako eremuetatik kanpo.

– Obretan hidrokarburoen xurgatzaile espezifikoa (biribilki modukoa, material pikortatua...) jarri beharko da eskura, ustekabeko isuri edo ihesen bat gertatuz gero berehala aplikatu ahal izateko.

– Hormigoi-upelak berariaz horretarako egokitutako guneetan garbituko dira. Hormigoi-esnea inola ere ezin izango da isuri ibilgura. Hormigoiaren hondakinak ebazpen honetako D.6 apartatuan ezartzen diren baldintzen arabera kudeatu beharko dira.

D.3.– Lurzoruaren kalitatea aurreikusitako erabilerekin bateragarria dela bermatzeko neurriak.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten leku gehiago aurkitzen badira obrak gauzatzean, edo lurzorua kutsatzen duten substantziak daudela pentsatzeko arrazoi sendoak baldin badaude, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko Legean ezarritakoa bete beharko da (4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa).

D.4.– Airearen kutsadura saihesteko eta hauts-emisioak murrizteko neurriak.

– Lanek irauten duten bitartean, ibilgailuak igaro ondorengo garbitze-lanak zorrotz kontrolatuko dira, bai obren eraginpeko ingurunean, bai obretara sartzeko guneetan. Pistak ureztatzeko eta aldi baterako estali gabe dauden eremuak eta ibilgailuak pasatzean material partikulatua aireratu daitekeen gainazalak garbitzeko sistema bat izan beharko da. Gainera, lehorraldietan, hautsa duten lur- eta material-pilak ureztatu egingo dira.

– Obra-guneko irteeran, ibilgailuak garbitzeko gailuak jarriko dituzte, solidoak biltzeko sistema bati konektatuta, aurkeztutako dokumentazioan adierazi bezala. Gailuok egoera onean mantenduko dira obra-faseak iraun bitartean.

– Ebazpen honetako D.12 puntuan zehaztutako dokumentazioan adieraziko dira aipatutako elementuen ezaugarriak, kokaleku zehatza eta neurriak.

– Indusketatik ateratako materiala hezetasun-baldintza egokienetan garraiatuko da, zama estaltzeko gailuak dituzten ibilgailuetan, lokatzak eta partikulak barreia ez daitezen. Garraiatu beharreko materiala oso fina bada, ahal dela, kamioi itxiak erabili beharko dira. Era berean, kamioiak kargatzeko konpartimentuak egoera onean egon beharko dira, garraiatzean hauts-ihesik egon ez dadin. Kamioiak poliki-poliki kargatu beharko dira; gomendatzen da materiala txikienetik handienera kargatzea, materialik finenak konpartimentuaren hondoon lodiagoek estalita gera daitezen. Ibilgailuak 25 km/h-tik beherako abiadura joango dira obra-eremuen barruan.

– Materialak eta ekarkinak aldi baterako metatzeko eremuak bizitoki diren eraikinetatik urruti egongo dira. Materiala haizearen aurkako eremuan kargatu eta deskargatu behar da. Gomendatzen da pilaketak partzialki edo guztiz estaltzea, haize zakarrak daudenean hautsik ez barreiatzeko.

– Materialaren zamalanak egiteko maniobrak ahalik eta gutxien izango dira, bai eta ibilgailuen joan-etorriak ere, obra-eremuetan.

– Hautsa sor dezaketen lanak (adibidez: materialak moztea eta zulatzea) haizearen aurka egingo dira, eta ura botako da lanok egitearekin batera (gehiegi erabili gabe), emisioak ahalik eta gutxien izatea ziurtatzeko.

– Materialak: Eraikuntzan, ahal dela, material prefabrikatuak erabiliko dira. Zoladurari dagokionez, ahal dela, material erresistenteak eta bizi luzeak erabiliko dira.

– Obra-eremuan ez da materialik erretzen utzi behar.

– Gomendatzen da obraren perimetro osoa haizetik babesteko defentsak eraikitzea.

D.5.– Zarataren eta bibrazioen ondorioak gutxitzeko neurriak.

– Lanek iraun bitartean, jardunbide egokiak aplikatu beharko dira sorburuan zaratak murrizteko, bereziki indusketa-, eraispen-, zamalan- eta garraio-lanetan, baita erabilitako makineriaren mantentze-lanetan, zaraten eta bibrazioen murrizketan, zarata sortzeko ordutegia mugatzean eta erabilitako ekipoen zaraten kontrolean eta abarreen ere.

– Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatze akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren soinu-emisioei buruz indarrean dagoen legerian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

– Bestalde, proiektua garatzean, obraren eragin-eremuan sorrarazitako zaratek ez dituzte gaudituko kalitate akustikoaren helburuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoak, hargatik eragotzi gabe dekretu horretako 35.bis artikuluan ezarritakoa.

– Egunez bakarrik egingo da lan.

D.6.– Hondakinak eta lurrak kudeatzeko neurriak.

– Proiektuaren gauzate- eta funtzionatze-faseetan zehar sortutako hondakinak kudeaketa Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean, eta arautegi zehatzetan xedatutakoaren arabera egingo da.

– Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira; hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne, eta, azkenik, deuseztatzea.

– Hondakinak deuseztatzeko, ezinbestekoa izango da aldez aurretik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea.

– Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdinetako hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek biltzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak jarriko dira, aipatutako nahasketa horiek ekiditeko.

– Eraikitze- eta eraispén-jardueren ondorioz sortutako hondakinak eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan eta eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

– Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazio teknikoaren arabera, proiektuaren obrek iraun bitartean sortuko diren lur-mugimenduen balantzeak 147.000 m³-ko lur- eta harri-soberakina eragingo du, eta hori obren kokalekutik kanpo kudeatu beharko da. Soberako lur horiek, ahal dela, lur beharra duten beste obra batzuetan berrerabiliko dira.

Soberakin horiek kudeatzeko, hierarkiaren printzipioari eta hondakinak kudeatzeko hurbiltasunaren printzipioari jarraituko zaie. Hondeatutako material kutsagabe naturalei dagokienez, ukitutako lursaila morfologikoki leheneratzeko erabiltzea baztertu ondoren, balorizazioa lehentetsiko da, honelako lanetarako erabiliz: material horiek behar dituzten gertuko eraikuntza-obra, erauzketa-jarduerak eragindako lursailak birgaitzeko lanak edo beste espazio degradatu batzuk leheneratzeko lanak. Hala, ez dira ezabatuko betelan-instalazioetan. Horretarako, urriaren 10eko APM/1007/2017 Aginduan –Hondeatutako material naturalak betelanean eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau orokorre buruzkoa– xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

– Zabortegira bidali beharreko hondakinak, gainera, Hondakinak zabortegietan utziz ezabatze jarduera arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren eta Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera kudeatuko dira.

– Jarduerako soberakinak betelanak egiteko erabiltzen badira, aipatutako otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

– Obrak amaitzean, proiektuaren sustatzaileak lurren mugimenduen balantze zehatza eta industria-soberakinen jarraipena igorri beharko dizkio Ingurumeneko Sailburuordetzari, bai eta honako hau zehaztu ere: atera ziren lekuetan ez beste leku edo obra batzuetan eraikuntzara bideratutako materialen kopuruak eta ezaugarriak.

– Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izan beharko dira, isurketaren baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihur daitezkeen edo kudeatzeko zailagoak izan daitezkeen hondakin moten kasuan. Orobat, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan hondakinak biltegitratzeari, nahasteari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruz ezarritako betebeharrak bete beharko dira, eta itxita egongo dira kudeatzaile baimendu bati entregatu arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezzen.

– Aurrekoaren haritik, eremu jakin bat egokituko da hondakin arriskutsuak aldi batean pilatzeko, hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak eta pinturak. Gainera, hondakin geldoak biltzeko berrazko edukiontzia jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneeetatik bereizita.

– Aipatutako ontziak edo bilgarriak argi nahiz irakurtzeko eta ezin ezabatuzko moduan etiketatu beharko dira, bai eta indarreko araudiaren arabera ere.

– Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 29. artikuluari eta Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatuko da sortzen den olio erabilia.

Olio erabiliak, kudeatzaile baimendu bati eman arte, estalpean utziko dira behar bezala etiketatutako depositu estankoetan; zolata iragazgaitz baten gainean egon beharko dira, kubo txikietan edo ihesei eta isuriei eusteko sistemen barruan.

– Araudi hori betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lanen arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, inolaz ere ez da efluente kontrolatu gaberik sortuko, erregai eta produktuak biltegitratzeagatik, makinaren mantentze-lanak egiteagatik edo hondakinak erretzeagatik.

– Kontuan hartuko da abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84.3 artikuluan erosketa publiko berdeari buruz xedatutakoa.

– Obretan sortutako hondakinen ingurumen-jarraipena jasoko duen txosten bat egin beharko da, eta indarreko legedian jasotako identifikazio-dokumentuak eta tratamendu-kontratuak txosten horretan sartu beharko dira.

D.7.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, obretan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala jakinaraziko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari; hark erabakiko du zer neurri hartu.

D.8.– Paisaia babesteko eta eragindako lekuak leheneratzeko neurriak.

– Proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aurkeztutako dokumentazioan jasotako proposamenari jarraikiz egingo dira leheneratze-lanak.

– Ingurumen-leheneratzean sartuko dira luraren berroneratze geomorfologikoa eta edafikoa, bai eta landare-estalkia izan dezaketen guneen landareztatzea ere.

– Obrek ukitutako eremu guztietako leheneratze-neurriak obrak egin ahala hartuko dira; hala, obrek aurrera egiten duten neurrian, birmoldaketa- eta landareztatze-lanak egingo dira.

– Lur-mugimenduek irauin bitartean, landare-lurra kendu, metatu eta bereizita zabalduko da, eragindako eremuen leheneratzea eta landareztatzea errazte aldera.

– Obra kontratatze baldintzen agiriak eta aurrekontuek barne hartu beharko dituzte proposatutako landareztatze-jarduketak –Izazpi mendiko pagadia berroneratzeko konpentsazio-neurria barne– behar bezala betetzen direla, beharrezkoak diren baldintza teknikoak eta aurrekontu-partidak bermatzeko.

– Leheneratzeko lanak egin bitartean, landare aloktono inbaditzaileen hedapena galarazteko ekintzak gauzatuko dira.

– Bermealdian, mantentze-lanak egingo dira: lurra urratu, ongarritu, ureztatu eta hutsarteak bete, hala badagokio.

D.9.– Jardunbide onen sistema bat hartzea.

Obrek iraun bitartean, langileek jardunbide egokien sistema bat beharko dute, helburu hauek, besteak beste, ahalik eta hobekien bermatzeko:

– Obraren erabilera-mugak eta makineriaren zirkulazioa kontrolatzea.

– Ongi kontserbatutako landarediaren gaineko eraginak kontrolatzea.

– Hondakinik ez isurtzea eta olio-isurketen edo lur-arrasteen ondorioz lurzorua eta ura ez kutsatzea.

– Obretan sortutako hondakinak era egokian kudeatzea.

– Proiektuak eragindako herriguneetako biztanleei enbarazurik ez eragitea zarata eta hautsarekin.

D.10.– Garbiketa eta obra bukatzea.

Behin obrak amaituta, garbiketa-kanpaina sakona egingo da, proiektuaren eraginaren mende egon den esparru osoan obra-hondakinik ez uzteko. Horren ondoriozko hondakinak lan-eremutik aterako dira, eta, haiek kudeatzeko, ebazpen honen D.6 apartatuan xedatzen dena aplikatuko da.

D.11.– Ingurumen-aholkularitza.

Obra amaitu arte eta berme-aldian zehar, obra-zuzendaritzak ingurumenaren, eta oro har, neurri babesle eta zuzentzaileen inguruan kualifikatutako aholkularitza izan beharko du. Baldintza-agiriak gai horiei buruz esleitzen dizkion funtzioen alorrean Obra Zuzendaritzak hartu beharreko erabakiek, alde aurretik, aholkularitza horrek egindako txostena izan beharko dute.

Ingurumen-aholkularitzak, gainera, jardunbide egokien kontrola egingo du obra gauzatzean; besteak beste, proiektuko ekintzen eragina egiaztatuko du, bereziki honako hauei dagokienez: makinaren mugimenduak, hautsa eta zarata sortzea, makinak direla eta zarata sortzea, hondakinen kudeaketa eta natura-ondarea babestea.

D.12.– Lan-programaren diseinua.

Obrak hasi aurretik, kontratistak proposamen zehatzak egingo ditu ondorengo azpiapartatu hauetan jasotako alderdiei buruz, gutxienez.

Lanak egiteko programari erantsiko zaizkio proposamen horiek, eta obren zuzendariak berariaz onartuko ditu; aurrez, txosten bat egingo du aurreko apartatuan aipatutako ingurumen-aholkularitza. Dokumentu hauek bilduko ditu aipatutako programak:

– Eraikuntza- eta eraispen-lanetan sortzen diren hondakinak kudeatzeko plana, honako hauek errespetatuta: Eraikuntza- eta eraispen-lanen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren 5.1 artikulua; Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 7. artikulua.

– Kontratastaren instalazioen eremuen kokalekuari eta ezaugarriei buruzko xehetasunak, pila-
ketak behin-behinean biltzeko eremua, makineria-parkeak, instalazioak eta materialak, ibilgailuak
garbitzeko eremuak eta beste edozein azpiegitura adierazita.

– Ibilgailuak garbitzeko gailuen kokapena eta ezaugarriak.

– Urari ez eragiteko erabiliko diren jalkinei eta hondakin-urei eusteko gailuen kokapena eta
ezaugarriak.

E) Ingurumen-zaintzako programa.

Sustatzaileak proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko aurkeztutako dokumen-
tazioan aurreikusitakoaren arabera gauzatuko da Ingurumena Zaintzeko Programa, eta ondoren
zehaztuko diren kontrol hauek erantsi behar zaizkio.

Programa hori obra kontratatzeko baldintza-agirietan sartuta egon behar da, eta bete ahal iza-
tea bermatuko duen aurrekontuaz hornituko da.

E.1.– Gorabeheren erregistroa.

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, baita babes- eta
zuzenketa-neurrien betetze-mailarena ere. Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularra-
ren Zuzendaritzaren eskura egongo da erregistroa, hark ikuskatzeko, eta, nolnahi ere, lanak
amaitutakoan, hari bidaliko zaio. Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, aldaketa horiek
xehetasunez adierazi beharko dira. Ingurumenean duten eraginaren ikuspegitik justifikatu egin
beharko dira aipatutako aldaketak.

Horri dagokionez, obretan sortutako hondakinen jarraipenari buruzko txostena jasoko da, eta
hondakin horien kontrolerako, jarraipenerako eta egokitzapenerako agiriak erantsiko dituzte gai-
nera, indarrean dagoen legeriari jarraituz.

E.2.– Obraren erabilera-mugen kontrola.

Lanen eremua proiektuko aurreikuspenekin bat datorrela egiaztatuko da; obrek ez dute hartuko
aurreikusitako azalera baino eremu handiagorik.

E.3.– Leheneratzearen arrakasta kontrolatzea.

Obra amaitu ondorengo bost urteetan, proiektuak eragindako guneak leheneratzeko prozesua-
ren arrakastaren jarraipena egingo da urtean behin.

E.4.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena Zaintzeko Programaren emaitzekin batera, ingurumen-gaietan espezializatutako
erakunde batek egindako jarraipen-txostena ere aurkeztu beharko da. Txosten horretan emaitzen
analisi jasoko da, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien balizko kau-
sak eta konponbideak eta, halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldeztu aurretik egin ez
bada.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2021 Legearen 52.2 artikuluan xedatu-
tako betez, baldintzak edo ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritako prebentzio- eta
zuzenketa-neurriak betetzeari buruzko jarraipen-txostenean, Ingurumena Zaintzeko Programan
aurreikusitako neurriak egiaztatzeko zerrenda bat jasoko da. Biak, Ingurumena Zaintzeko Pro-
grama eta egiaztapen-zerrenda, Ezkio-Itsasoko Udalaren egoitza elektronikokoan argitaratuko dira.
Aldez aurretik ingurumen-organoari jakinaraziko zaio egoitza elektronikokoan argitaratuko direla.

Ingurumena Zaintzeko Programaren barruko txosten eta analisisien emaitzak behar bezala erre-
gistratuko dira.

Proiektuaren sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta datu
horiek administrazio publikoen ikuskaritza-zerbitzuen eskura jarriko dira; hori guztia, hala ere, ez
da eragozpen izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

F) Baldin eta arautegi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta
funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala eginarazten
badigute, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumen-zaintzako programa aldarazi ahal izango
dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai eta neurketaren aldizkakotasuna eta aipatu-
tako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Ingurumen-organoak,
era berean, alda ditzake babes- eta zuzenketa-neurriak eta Ingurumena Zaintzeko Programa, jar-
dueraren sustatzaileak hala eskatuta eta organo substantiboaren bidez, edo ofizioz. Hori guztia,
Ingurumena Zaintzeko Programan lortutako emaitzetan oinarrituta egingo da, edo sor daitezkeen
ingurumen-inpaktuen aurrean ezarri diren babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak nahikoa
ez direla egiaztatzen bada.

Hirugarrena.– Proiektua gauzatzen hasteko epea lau urtekoa izango da, ingurumen-inpaktua-
ren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera. Epe
hori igaro eta proiektua gauzatzen hasi ez bada, ingurumen-inpaktuaren adierazpen honi amaitu
egingo zaio indarraldia, eta utzi egingo dio dagozkion ondorioak sortzeari. Kasu horretan, sustatzaile-
ak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren izapidea, non eta
ez den erabakitzen ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren indarraldia luzatzea. Hori guztia, bat
etorri abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78.5 artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen
43. artikuluan ezarritakoarekin.

Laugarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, proiektuaren sustatzaileak
aldeztatik jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari noiz hasiko den proiektua gauzatzen.

Bosgarrena.– Ezkio-itsasoko Udalari eta Sprilur SAri jakinaraztea ebazpen honen edukia.

Seigarrena.– Ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian
argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 8a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.